EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEA

COMISIÓN DE DERECHO CIVIL VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA, 2018-2020

---

1. zk.

00. Aurkezpena

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak araubide berezia ezartzen du, Konstituzioaren barruan, foru-lurraldeentzat, eta Euskadi eta Nafarroa aipatzen ditu: «Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala denean, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen eremuan egingo da».

Eskubide historiko horien oinarrian zeuden foru-antolamenduak berezkoak dituen «askatasunak eta eskubideak, usadioak eta ohiturak», Konstituzioaren testuaren babesa eta errespetua merezi dutenak. Babes eta errespetu horrek, era berean, aurrekari zuzen bat du, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginek berek aipatutako lurraldeetan erabili behar zuten formula hau: «Zin egiten dut ondo gordeko eta ondo gordetzea aginduko dudala bizkaitarrek orain arte izandako askatasun eta eskubideak, usadio eta ohitura guztiak, beraiek izan eta nahi dituzten eran».

Hori esanda, adierazi nahi dut xedapen gehigarri horren bigarren zatiak foru-araubidea oro har eguneratzea agintzen edo eskatzen duela, eta Konstituzioaren eta Estatutuaren esparruan egingo dela.

Bada, nahiko argi dago euskal zuzenbide zibila edo zuzenbide zibil foral edo berezi propioa –hala esaten dio Estatutuak– eskubide historiko horien eta eguneratu behar dugun foru-araubide horren parte dela. Zuzenbide zibil horrek ez dio duela gutxi arte iraun zuzenean aplikatuta duen Foruen zatiari bakarrik egiten erreferentzia. Foruetan jada agertzen den Zuzenbide zibil edo pribatu hori da Zuzenbide osoaren oinarria, Zuzenbide publikoa edo erakundeei buruzkoa barne: zuzenbide zibileko mandatu-kontratuak Gernikan, Aiaran edo Tolosan Batzar Nagusietara joaten ziren batzarkideen ordezkaritza-titulu gisa balio zuten ginduzko mandatuei forma eman zien bezala, askatasun zibila eta erakunde pribatuak izan ziren, hasiera batean, ordezkaritza politikoaren oinarria.

Ondorioz, gaur egungo euskal erakunde politikooi dagokigu, baita ere, foru-araubide horretako zuzenbide pribatuari buruzko zatia eguneratzea. Foru-araubide hori da Konstituzioak eguneratzeko agintzen duena, eta Estatutuak kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko eskatzen diguna. Eta hori, zalantzarik gabe, hobeto egin ahal izango dugu, ohore handiz zuzentzen dudan Zuzenbide Zibilaren Batzorde honen laguntza ordainezinarekin.

Olatz Garamendi
Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko burua

01. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea (EZZB) Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak sortu zuen.

Zehazki, lege horren lehen xedapen gehigarriaren arabera, Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-organoa da, eta bere misioa izango da euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea eta arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatzea.

Xede horrekin eta hura garatzen duten estatutuetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako eginkizun hauek dagozkio, zehazki:

a) Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egitea barne, hala badagokio.

b) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea, barruan hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko xedez eta aurreko letran aipatzen den garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez.

c) Zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea, Euskal Zuzenbide Zibilaren legegintza-garapenak eta aplikazioak izango duten Estatuko eta Europako arau-esparruaren alorrean, baita Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak eska dezaketen aholkularitza ematea ere, batez ere erakunde horiei Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela eta kontsultak egiten dizkietenean.

d) Eskatzen dizkioten lege-aurreproiektuen eta xedapen-proiektuen zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne, eta, era berean, Batzordetik ateratzen diren testuetan aplikatzea indarrean diren legegintzako teknikaren zuzentarauak eta egin beharreko lege-proiektu, dekretu, agindu eta ebazpenak egitekoenak. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da Euskal Zuzenbide Zibilaren adierazpen-hizkuntza bezala, eta bere terminologia juridikoaren azterketa, bultzada eta zabalkundea,

Euskaltzaindiarekin, Eusko Legebiltzarrarekin, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin eta horretarako egoki irizten dituen beste gizarte eragileekin elkarlanean.

e) Europan eta Estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak bermatzea, bai eta administrazio-prozedurako oinarrizko legeriak zein euskal sektore publikoaren gobernantza onak eskatzen dituenak ere, eta, era berean, kontuan hartzea edo sustatzea indarrean dauden arauen emaitzen ebaluazioak eta, eskatzekoak direnean, egiten dituen araugintza-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.

f) Zuzenbide Zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrari aholkularitza ematea, eta, hala badagokio, Administrazio Orokorraren gainerako sailei eta, era berean, baita Batzordearekin harremana izateko ardura daukan Legebiltzarreko organoari ere, eskatzen duten guztietan.

g) Artikulu honetan ezarritakoez gain edo haien osagarri gisa, Zuzenbide Zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

Organikoki, Batzordearen estatutuek xedatutakoaren arabera (urriaren 4ko 140/2016 Dekretuak onartu zituen, eta haren funtzionamendua ez ezik, dagokion sailaren egitura organikoarekin eta funtzionalarekin lotutako indarreko arauak ere arautu zituen), Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, eta, gaur egun, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio, lehendakariak agindutako sailen arteko arloen eta eginkizunen banaketaren arabera.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea 2017ko azaroaren 29an eratu zen formalki, batzordekideak izendatzeko prozesua eta haren deialdia eta baliozko eraketa egiteko nahitaezko izapideak amaitu ondoren, Gasteizen egindako lehenengo osoko bilkuraren bidez. Batzordeak, salbuespen gisa, Iñigo Urkullu Renteria lehendakaria izan zuen bertan. Une horretatik aurrera eta osoko bilkuran 2018rako jarduketa-plana eta urteko jarduerak aurkeztu eta eztabaidatu ondoren ekin zion organoak bere ibilbideari eta jarduerari, eta, dagoeneko, hiru urte baino gehiago iraun du. Gaur egunera arte, 2021eko ekainaren 30ean egin zen azkeneko osoko bilkura.

02. Eusko Legebiltzarrarentzako txostena

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuen 7.j) artikuluaren arabera, zera dagokio batzordeko Lehendakariari: «Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jardunari buruzko urteroko txostena igortzea Eusko Legebiltzarrari, honen ezagutza hutserako».

Hala ere, hainbat arrazoi direla eta, orain arte, ez zaio aurkeztu txostena Eusko Legebiltzarrari. Arrazoi batzuk organoari berari dagozkio, duela gutxi sortua denez, abian jartzeko eta lehen lanak egiteko zailtasunak izan ditu eta. Beste batzuk, organoaren barne-funtzionamenduaz kanpokoak dira; esaterako, pandemia, ezarritako hauteskunde-prozesuak eta gobernua eta kideak berrantolatzea tartean.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak formalki sortu bazuen ere, 2015., 2016. eta 2017. urteetan ez zen egin txostena behar zuen jarduerarik. Batzordeak 2018ko ekitaldian ekin zion bere ibilbideari, urte horretarako onartu zituen jarduketa-planarekin eta urteko jarduerekin.

Hori dela eta, eratzeko osoko bilkuraren lehen bilera 2017ko amaieran egin zen, baina, benetan, 2018a izan zen organoaren lehenengo jarduera-urtea. Bestalde, jardueren deskargua eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen osoko bilkuran 2018rako egindako urteko planaren betetze-mailari buruzkoa, zehazki, 2018ko abenduaren 12an egindako osoko bilkuran egin zen. Era berean, bilkura horretako akta ez zen onartu 2019ko abenduaren 19an egindako bilerara arte, eta bertan jaso zen, halaber, deskargua.

Hirugarren osoko bilkura, bada, 2019ko abenduaren 19an egin zen, eta osoko bilkuraren akta eta lehen jarduera-urtearen deskargua onartu ziren. Horrela, txosten honetan aipatutako azken urtera iritsi gara: 2020. Aurreikusita zegoenez, urte hartan hasiko zen, azkenean, txostenak Eusko Legebiltzarrera bidaltzen, eta, dagokion bezala, urtero egingo zuen. Hala ere, jakina eta nabarmena denez, urte hartan guztiok bizi izan genuen egoeragatik, ezin izan zen egin 2020rako aurreikusita zegoen ezer.

Beraz, zor bat daukagu ordaintzeko, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen hiru urteko ibilbideari dagokion (2018., 2019. eta 2020. urteak) txosten honen bidez kitatu nahi dugu.

Dena den, argitu behar dugu ezen, organoa martxan jartzen den heinean eta bileren maiztasuna handitzen eta horiek arintzen diren heinean, bai batzordeburuak bai idazkari nagusiak espero dugula hurrengo urteko txostenak, beranduenez, dagokien aldiaren ondorengo urtean aurkeztea.

03. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen barne-egitura eta funtzionamendua, 2018tik 2020ra.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak honako organo hauek izango ditu:

- **Batzordeburua**

Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularra da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko burua. 2018-2021 aldian, **Josu Erkoreka Gervasio** izan zen batzordeburu, 2016-11-26tik 2020-09-07ra Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu zela, eta, orain, **Olatz Garamendi Landa** egungo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua da Batzordeko Lehendakaria.

Hori horrela, Batzordeko Lehendakariari dagokio, besteak beste, organoa ordezkatzea, osoko bilkuraren bileretarako deia egitea eta bilera horien buru izatea, eta osoko bilkurak Batzordeari egindako proposamenen erantzuna Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko agintzea, barne hartuta, hala badagokio, proposamen horiek, azterlanak edo txostenak argitaratzea.

- **Osoko bilkura**

Dagokion estatutu-aurreikuspenaren arabera, Batzordearen osoko bilkura osatzen dute batzordeburu edo Batzordeko Lehendakariak eta batzordekideek. Kide horiek mundu juridikoko eta, bereziki, zuzenbide zibilaren esparruko hainbat erakundek eta eragilek izendatutakoak dira, eta, beren eginkizuna betetzeko, objektibotasunez eta independentziaz jardun behar dute.

Batzordekideek isilpean gorde beharko dituzte proposamenak, irizpenak eta txostenak, harik eta dagokion araua onartzen den arte edo, izapidetu behar ez badira, batzordeburuak kontrakorik adierazi arte. Betebehar hori lanen egoerari eta bileretan izandako eztabaidei, iritziei eta botoei dagokienez ere bete behar da.

Batzordearen osoko bilkurak urtean ohiko bilera bat egiten du, gutxienez; ezohiko bilera, berriz, batzordeburuak deialdia egiten duen bakoitzean egiten da, bere kabuz edo osoko bilkurako heren batek eskatuta.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko irailaren 22ko Aginduaren bidez, lehenengo batzordekideak izendatu ziren, kasuan kasuko erakundeek edo organoek aurretik egindako izendapenak aintzat hartuta, eta horiek osatu zuten, jatorriz, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen osoko bilkura.

Gaur egun, ordutik egondako aldaketak kontutan, honako pertsona hauek osatzen dute osoko bilkura:

- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, zuzenbide zibilaren arloko eskumena duen aldetik, honako hauek izendatu ditu sail horretako goi-kargudunen artean: Sabino Torre Díez; Jone Berriozabal Boveda (2021eko martxoaren 24tik) eta Jon Iñaki Urbina García de Vicuña (2021eko martxoaren 24tik).

- Eusko Legebiltzarrak izendatuta: Leire Imaz Zubiaur; Juan Carlos Martinez Llamazares eta Juan Antonio Arieta-Araunabeña Ibarzabal (2021eko martxoaren 24tik).

- Arabako Batzar Nagusiek izendatuta: José Jaime Tapia Parreño.

- Bizkaiko Batzar Nagusiek izendatuta: Nazario de Oleaga Páramo.

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek izendatuta: Luis Elicegui Mendizabal.

- Emakundek izendatuta: Elixabete Piñol Olaeta.

- Lehendakaritzak izendatuta, Europako gaien gainean eskumena duen saila den aldetik: Juan Jose Alvarez Rubio.

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak izendatuta, familia-politikaren arloan eskumena duen saila den aldetik: Francisco de Borja Iriarte Angel.

- Lan eta Enplegu Sailak izendatuta, gizarte-ekonomiaren gaineko eskumena duen aldetik: María Arantzazu González López (2021eko martxoaren 24tik).

- Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: Jorge Sanchez Moreno.

- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak izendatuta: Jone Elizarán Arruabarrena.

- Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: José Miguel Gorostiza Vicente.

- Arabako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: María de las Mercedes Marco Sáenz De Ormijana (2019ko ekainaren 19tik).

- Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Ospetsuak izendatuta: Jaime Villaverde Ferreiro.

- Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargo Prestuak izendatuta: Juan Ramon Alvarez Uria.

- Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuak izendatuta: Mario Martinez de Butron Martinez; Jose M.ª de La Peña Cadenato eta Diego María Granados de Asensio (2019ko ekainaren 19tik).

- Zuzenbidearen Euskal Akademiak izendatuta: Andres Urrutia Badiola.

- Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde Dekanotzak izendatuta: German Barbier Gaminde; Asier Fernandez Ruiz eta Maria Begoña Ruiz Alutiz (2019ko ekainaren 19tik).

- Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuta: Jacinto Gil Rodriguez.

- Deustuko Unibertsitateak izendatuta: Oscar Monje Valmaseda.

- Mondragon Unibertsitateak izendatuta: Izaskun Alzola Berriozabalgoitia.

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten magistratuen artean: Edmundo Rodríguez Achúlegui (2019ko abenduaren 17tik).

- Fiskaltzak izendatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten fiskalen artean: Jesus Izaguirre Gerricagoitia.

- **Idazkaritza Nagusia eta Komite Teknikoa**

Batzordeburuaren menpean idazkari nagusi bat dago. Haren egitekoak dira lanak koordinatzea eta lan horietan laguntzea eta beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu administratiboak betetzea. Zerbitzu horiek zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dauden langileek betetzen dituzte.

Zuzenbide Zibilaren arloan lege-garapenari dagokion eskumena esleituta duen organoaren titularra da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko idazkari nagusia. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa arautzen duten arauen arabera, Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen

eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza da organo hori[1] eta, honenbestez, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendari gisa, Xabier Unanue Ortegak bete du Batzordeko Idazkari Nagusi kargua 2016-11-26tik gaur egunera arte.

Hala, bere zuzendaritzapean jarduten du Batzordearen Komite Teknikoak. Komite hori, funtsean, zerbitzu juridiko zentraletako edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailetako aholkularitza juridikoetako letraduek osatzen dute, eta Batzordearentzat lan egiten du, bai modu iraunkorrean bai txosten edo lan jakin bat egiteko modu berezian.

Era berean, inolako ordainik gabe, batzordeburuak izendatutako laguntzaile atxikiek edo osoko bilkurako kideak izendatzen dituzten erakundeek proposatutako ospe handiko legelariek ere parte hartu ahal izango dute Komite Teknikoan.

Komite Teknikoari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Araugintza-testuen aurreproiektuak eta proposamenak prestatzea eta idaztea.

b) Euskal Zuzenbide Zibilaren arauen aurrekariak aztertzea, oraingoak edo historikoak, baldin eta horrek zuzenbide horren aplikazioari buruzko irizpenak emateko balio badu edo zuzenbide hori kontserbatzeko, mantentzeko eta garatzeko balio badu.

c) Arauen gaineko ebaluazioak egitea; esate baterako, praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak biltzea, Eustaten (Euskal Estatistika Institutua) eta antzeko erakundeen laguntzarekin, eta notarioen estatistiken eta estatistiketarako eta analisiak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin.

d) Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzeko behar diren beste azterlan batzuk egitea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea; eta, hala badagokio, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egingo ditu.

[1] *Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzeko urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren eranskinaren 11.2 artikuluaren arabera, eta lehenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14.f) artikuluaren arabera, eta, ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.f) artikuluan.*

e) Osoko bilkurari egotzitako beste zereginetan laguntzea, hura bilduta ez dagoen bitartean.

04. EZZBren jarduketak 2018., 2019. eta 2020. urteetan.

- **Osoko bilkurak eta jarduera orokorra**

Lehen adierazi den bezala, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea 2017ko azaroaren 29an eratu zen formalki, lehenengo osoko bilkuran, eta bertan onartu zen, osoko bilkura horretan aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, 2018rako lehenengo jarduketa-plana eta urteko jarduerak.

2018an, berriz, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen osoko bilkura urteko ohiko bilkuran baino ez zen bildu, 2018ko abenduaren 12an. Bilera horretan, esan bezala, ekitaldi horretan egindako lanaren berri eman zen, eta 2019rako hurrengo jarduketa-plana eta urteko jarduerak onartu ziren.

2018ko ekitaldian, urte hartako planean aurreikusitako jarduketak eta jarduerak hedatzea izan zen Batzordearen zeregina. Jarduera hori idazkari nagusiak eta Komite Teknikoak egin zuten nagusiki, eta, espezifikoki, Batzordearen barruan sortutako lantalde batek. Batik bat esparru judizialetik etorritako zenbait kidek osatu zuten lantaldea, 2017ko eratze-saio berean, euskal kasazio zibilaren lege-proiektua aurrera eramateko.

2019an, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen osoko bilkura urteko ohiko bilkuran baino ez zen bildu, 2019ko abenduaren 19an.

Ohiko bilkura horretan, aurreko urteko ohiko bilkuran aurkeztutako 2019ko jarduketa-planaren eta urteko jardueren garapenaren berri eman zen, eta ekitaldian zehar sortutako beste gai batzuk ere jorratu ziren: Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako hainbat lege-proposamen (7/2015 Legea eta 5/2015 Legea aldatzekoak) eta Eusko Jaurlaritzak eskatutako txostenak, erregelamenduzko arau-ekimenei dagokienez (Ondareari buruzko Legea garatzeko Dekretua); Batzordeak jasotako herritarren ekimenen baten berri eman zen (5/2015eko Legearen 15. artikulua –besteen landetatik kalterik egiten gabe igarotzeko eskubideari buruzkoa– aldatzekoa) eta, oro har, egindako lana aurkeztu zen.

Aurreko ekitaldietan bezala, jarduera hori lotuta dago idazkari nagusiak eta Komite Teknikoak egindako lanarekin, eta, espezifikoki, lehen aipatu den lantaldeak egindakoarekin (Batzordean sortu zen, euskal kasazio

zibilaren lege-proiektuaren proposamena zela eta). Lana bukatu ondoren, aurreproiektuaren administrazio-izapidetzeari ekin zitzaion.

2020an, 2019ko abenduaren 19an adostutakoaren arabera, Batzordearen osoko bilkura ekainean zen biltzekoa, aurreko bilkuran adostutako lanei berriz heltzeko eta 2020rako jarduera-plana onartzeko, onartu gabe baitzegoen. Hori guztia, urte amaieran egiten den ohiko bilkurari kalterik egin gabe; bilera horretan, aurreko urteko plana bete dela jakinarazteaz gain, 2021erako jarduketa-plana eta urteko jarduerak onartuko lirateke.

Baina, asmo horiek gorabehera, COVID-19ak sortutako osasun-larrialdiak eta pandemiak eta Eusko Jaurlaritza nahitaez aldatu beharrak –eta, ondorioz, Batzordearen osoko bilkuraren eraketa, Eusko Legebiltzarreko eta Eusko Jaurlaritzako kideak baititu–, lehenik, ekainerako aurreikusitako osoko bilkura egitea eragotzi zuten, eta, ondoren, urte amaierako ohiko bilkura bera.

Hala ere, 2020. urtean, Batzordeak ez zion lan egiteari utzi.

Batez ere, 2015-2018 aldiari dagokion Euskal Zuzenbide Zibilaren egoerari buruzko eta ebaluazio orokorreko proiektuan egin zuen lan. Kasu honetan, bai Komite Teknikoaren beraren jardueraren bidez bai horretarako sortutako lantaldearen bidez, lanean eta bilerak egiten jarraitu baitzuten; aurrez aurre, egoerak aukera eman zuenean, eta, telematikoki, egiten ziren lanen jarraipena egiteko.

Kronologikoki laburbildu berri dugun jarduera hori guztia azalduko ditugun jarduketetan bitartez gauzatu da. Jarduketa horiek, estatutuen 5. artikuluak eta 2018. eta 2019. urteetarako onartutako Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jarduketa-planek eta urteko jarduerek esleitzen dizkioten eginkizunen hurrenkerari jarraituz, honako ardatz hauetan egituratzen dira:

- **Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea**

Euskal Zuzenbide Zibilean aldaketa handiak gertatu dira 2015etik aurrera. Lehenik eta behin, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea onartu zen (5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa), eta, ondoren, lege horrek utzitako arrastoari jarraituz, zuzenbide zibil foralaren eta Euskadiko zuzenbide bereziaren arloko eskumen-tituluari hel egin dieten gainerakoak (7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, Gurasoen banantze- edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzkoa; 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa; 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena, etab.). Hori dela eta, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak egin behar izan duen lehen lan gisa, helburu hau ezarri zuen 2018ko urteko

planak: euskal zuzenbide zibilaren egoera aztertzea eta ebaluatzea. Ebaluazio horren bitartez egia bihurtu beharko litzateke Estatutuek Batzordeari agintzen dioten lana, alegia, «indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez».

Lehendabiziko proposamenetik, ikerketak helburu zuen euskal zuzenbide zibilaren abiapuntu-egoera baloratzeko lehenengo urratsa izatea, euskal zuzenbide zibilaren garapena une oso berezian dagoelako; lehen aipatutako legeak indarrean jarri direnetik eginiko jarduna ebaluatuko da, Batzordean egin daitezkeen hausnarketak eta eztabaidak bultzatzeko.

Ebaluazio-prozesurako abiapuntu gisa, Batzordearen 2017ko azaroaren 29ko osoko bilkura eratu aurretik, Idazkaritza Nagusiak 20 apartatuko galdetegi bat prestatu zuen. Galdera irekien bidez eta arreta gai zehatzagoetan jarrita, euskal zuzenbide zibilari lotuta egon daitezkeen eremu guztien berrikusketa orokorra egin nahi zen; batez ere, ebaluazio honen oinarri izango ziren datuak edo iturriak identifikatzeko.

Galdetegi hori batzordekide guztiei eman genien; 2017ko eratze-bileran eskuz entregatu genien, eta, geroago, posta elektronikoz bidali genien. Jakin badakigu, halaber, 2018an, zenbait batzordekidek izendatu zituzten erakundeen barruan zabaldu zutela galdetegia (adibidez, elkargo profesionaletan), baita zuzenbide zibilaren arloko gaietan interes berezia duten elkarte profesionalen barruan ere (adibidez, Familia Abokatuen Espainiako Agentzian[2]).

Galdetegia erantzutea borondatezkoa zen, eta, 2018ko lehen hilabeteetan, batzordekideen heren batek (10 txostengilek) arauen ebaluaziorako galdetegiko galdera bat edo batzuk erantzun zituzten; guztien artean, galdetegiko 20 galderetatik 18 galdera erantzun zituzten (galdetegiaren % 90).

Lehen ekarpen horietan hainbat gai eta ikerketa-ildo zehaztu ziren, datuak hainbat iturritatik biltzen hasteko. Garrantzi berezia eman zitzaien jurisprudentzia- eta notario-iturriei, baita Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenei ere. Horrez gain, foru-ogasunen iturrien erabilgarritasuna aipatu zen, bai eta doktrina espezializatua edota erregistro juridikoak ere (Erregistro Zibila, Jabetza Erregistroa eta administrazio-erregistroak).

[2] https://www.abogacia.es/tag/asociacion-espanola-de-abogados-de-familia/

Azken erreferentziaren harira, inkestatuen heina handitu zen, eta Eusko Jaurlaritzako organoei ere bidali zitzaien galdetegia; zehazki, honako administrazio-erregistro hauek kudeatzen dituztenei: Izatezko Bikoteen Erregistroa, Fundazioen Erregistroa eta Elkarteen Erregistroa. Guztiek egin zituzten ekarpenak.

Aurreko guztiaren ondorioz, erantzunetan zuzenean emandako datuekin batera (eta, bereziki, galdetegia jaso zuten eta administrazio-erregistroak kudeatzen dituzten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek emandako erantzunetatik atera genituen datuak erabilita), biltzeko interesgarriak izango liratekeen datu berriak identifikatu ziren. Horretarako, erantzun garrantzitsuenak eta adierazgarrienak hartu ziren kontuan, batez ere, Euskal Zuzenbide Zibilaren egoeraren eta haren balizko garapenen irudi osoa lortu ahal izateko. Hori egiteko, EUSTATen laguntza behar izan genuen, Eusko Jaurlaritzaren estatistika-arloko erakunde espezializatua den aldetik.

Datu horietako batzuk eskuragarri zeuden bai datu-baseetan (notario-estatistikan[3] eta estatistika judizialetan[4]) bai jendaurrean jarritako memorietan (Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuaren estatistika eta memorietan eta Familia Bitartekaritza Zerbitzuaren[5] urteko memorietan), eta Komite Teknikoak hartu egin zituen azterketan sartzeko. Adierazi dugun bezala, EUSTATen laguntza ere behar izan genuen, erakundeak eskura zituen edo beste moduren batean eskura zitzakeen datuei dagokienez.

Beste kasu batzuetan ezinezkoa izan zen jendaurrean eskuragarri zegoen onlineko iturri bat aurkitzea, eta, 2018an zehar, informazio-eskabideak posta elektronikoz bidali genizkien erakundeei edo iturri zehatzei. Hona hemen instituzio eta erakunde publiko horietako batzuk:

- Erregistro Zibil Zentrala.
- Azpeitiko Erregistro Zibila, Amurrioko Erregistro Zibila, Balmasedako Erregistro Zibila, Getxoko Erregistro Zibila, Gasteizko Erregistro Zibila, Irungo Erregistro Zibila, Eibarko Erregistro Zibila eta Bilboko Erregistro Zibila.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazio Publikoko eta Erakunde Harremanetarako Saila.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumena eta Hirigintza Saila.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saila.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua.

[3] http://www.notariado.org/liferay/web/cien/estadisticas-al-completo
[4] http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/
[5] https://www.justizia.eus/mediacion-intrajudicial/texto?id=1290077285652

Ebaluazioa goian azaldutako metodologiaren arabera egiteko, interesgarritzat jotako informazioa eskatu zitzaien erakunde horiei (bereziki, auzotasun zibilaren, udal-mugarteen eta haurren babesaren arlokoa), kontuan hartuta beraien eskumenak eta eskuduntzak. Hedapen horren ondorioz, Balmasedako eta Irungo erregistro zibiletako arduradunen erantzun espezifikoak jaso ziren, bai eta foru-aldundietako haurren zerbitzuetako arduradunenak ere, eskatutakoaren arabera eta Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako Zuzendaritzaren bitartekaritzari esker.

Aipatutako estatistika publiko judizialeko baseei dagokienez, 2018an egindako lanen ondorioz, Komite Teknikoak ohartarazi zuen, hasiera batean, ez zetozela bat estatistika judizialen datu-baseak bere webgunean eskuragarri jartzen dituen datuak eta euskal zuzenbide zibilaren egoerari buruzko azterlan zehatzak eskatzen zituenak. Horren arabera, Komite Teknikoaren lanak egiteko ardura zutenek erabaki zuten Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako organo judizialek emandako euskal zuzenbide zibilaren arloko epaiei buruzko datu-base jurisprudentzial bat biltzea, *ex profeso*, Dokumentazio Judizialeko Zentroaren (DOJZEN) datu-basean[6] bilaketa sakonak eginez, jurisprudentzia-iturri publiko nagusia den aldetik. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako organo judizialek eta Auzitegi Gorenak euskal zuzenbide zibilaren arloan emandako epaien edo euskal zuzenbide zibilaren berezko gaiak jorratzen dituzten edo gai horiekin zerikusia duten legeen aipamenen bilduma zabal bat egin zen; horri esker, zuzenbidearen adar horretako gaiak eta justizia-auzitegietan maizen aipatzen ziren eta zerikusia zuten legeak identifikatu ahal izan ziren.

Horren harira, euskal zuzenbide zibil berria aplikatu duen jurisprudentzia aurkitzeari ekin genion, zuzenbide horrek egoitza judizialetan izan dituen aplikazioari buruzko datu errealak lortze aldera.

Abiapuntutzat hartu genuen 5/2015 legearen 2. artikuluan[7] euskal zuzenbide zibilaren jurisprudentziaren ondoreetarako ematen den definizioa, eta 2015eko urriaren 3tik (5/2015 legea egun horretan jarri baitzen indarrean) 2018ko abenduaren 31ra arte (egun horretan eman baitzen amaitutzat lan hau) Euskal Autonomia Erkidegokoan jurisdikzioa duten epaileek eta auzitegiek eman dituzten epaiak bilatu eta aztertu genituen, baldin eta epaietan euskal zuzenbide zibilaren arloko arauak aplikatu edo aipatu bazituzten.

[6] http://www.poderjudicial.es/search/indexAN.jsp

[7] «2. artikulua. – Jurisprudentzia

1.– Jurisprudentziak argituko du Euskal Zuzenbide Zibilaren interpretazioa, eta integratuko ditu bere aginduak.

2.– Euskal Zuzenbide Zibilaren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek ezartzen duten doktrina.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Sala arduratuko da aipatutako epaile eta auzitegietatik sortzen den doktrina bateratzeko, legeria prozesalak une bakoitzean hartarako ezartzen dituen baliabideen bitartez».

Azkenik, 2015eko urriaren 10a baino lehenagoko jurisprudentzia aurkitzen ere saiatu ginen, kontuan hartu baikenuen euskal zuzenbide zibilaren izaera dinamikoa; hartara, jurisprudentzia hori ere beharrezkoa zen euskal zuzenbide zibilaren bilakaera aztertzeko eta gertatutako aldaketak baloratzeko. Hala, 1992ko azaroaren 7tik (egun horretan jarri zen indarrean 3/1992 Legea) 2015eko urriaren 2ra (5/2015 Legea indarrean jarri baino egun bat lehenago) arteko epaiak aztertu ziren; zehazki, euskal zuzenbide zibilaren arloko arauak aipatzen zituztenak. Kasu horretan, kontuan hartu zen 3/1992 Legeak[8] euskal zuzenbide zibilari buruz emandako jurisprudentziaren definizioa, eta foru-zuzenbide zibila interpretatu edo aplikatu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko (EAEJAN) Arlo Zibileko Salaren epai eta auto guztiak zerrendatu ziren. Halaber, Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko epaileek eta auzitegiek (nagusiki probintzia-auzitegietakoek, baina baita epaitegietakoek ere) eman zituzten epaiak eta ebazpenak zenbatu ziren (baina, kasu horretan, azterketa konparatiboa egiteko, «jurisprudentzia» zerrendan sartu gabe).

Horrela, euskal zuzenbide zibileko arauak aplikatzen edo aipatzen zituzten epaien zerrenda egin zen, eta, gero, Batzordearen osoko bilkuran aurkeztutako lehenengo ebaluazio-zirriborroaren eranskinean sartu ziren.

Informazio estatistiko, aplikatibo eta jurisprudentzial horrekin eta, laburbilduz, zuzenbide zibilari buruzko datu eta iturri horiekin, 2018ko ekainetik aurrera, azterketaren lehen zirriborroa egin zuen Komite Teknikoak. Zirriborro hori, «Euskal zuzenbide zibilaren egoera ebaluatzeko dokumentua, 2015-2018 aldikoa» izenekoa, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko kideei eta osoko bilkurako kideei entregatu zitzaien, 2018ko abenduaren 12an egindako urteko bileraren aurretik. Bilera horretan aurkeztu zen formalki, eta ekarpenak egiteko beste aldi bat irekitzea erabaki zen, 2019an zehar aurkeztutako testua idazten eta editatzen jarraitzeko.

2019ko ekitaldian, 2018ko abenduaren 12ko osoko bilkuran adostutako urteko planaren arabera, epigrafe honetan egin beharreko zeregin nagusia zera izan zen: aurreko urtean hasitako euskal zuzenbide zibilaren egoeraren ikerketarekin eta ebaluazio integralarekin jarraitzea.

Komite Teknikoak egindako «Euskal zuzenbide zibilaren egoera ebaluatzeko dokumentua, 2015-2018 aldikoa» delakoaren lehen zirriborrotik abiatuta (informazio estatistiko, aplikatibo eta jurisprudentziala eta, laburbilduz, zuzenbide zibilari buruzko datu eta iturriak oinarri hartuta egin zen, aurreko ekitaldian, eta 2018ko abenduaren 12ko osoko bilkuran eman zitzaien batzordekide guztiei), 3 hilabeteko epea ezarri zen ekarpenak egiteko eta

[8] «2. artikulua.
Jurisprudentziak osatuko du foru-zuzenbide zibila, hura interpretatu eta aplikatzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako doktrinari jarraituz».

hautagaitzak aurkezteko, hala balegokio, lantalde espezifiko bat osatzeko eta, 2019an, aurkeztutako testua idazten eta editatzen jarraitzeko.

Epe horretan, beraz, berriro jaso ziren batzordekideen ekarpenak eta iruzkinak, eta zirriborroa osatu zen batzordekideek emandako informazio osagarriarekin (bereziki, notario-estatistikako informazioarekin), iruzkinen arabera falta ziren eta zuzenean EUSTATen lortu ziren datu estatistikoekin eta dokumentu honen alderdiren bat osatu edo indartu nahi duten doktrina-erreferentzia batzuekin.

Ekarpen horiek sistematikoki sartu ziren dokumentuaren zirriborroan, eta bigarren zirriborroa egin zen. Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuli zuen, eta, horrela, lehen lan-dokumentu elebiduna sortu zen.

Bigarren zirriborro hori, era berean, batzordekide guztiei eman zitzaien 2019ko abenduaren 19ko urteko osoko bilkuraren deialdiko dokumentazioarekin batera.

Ekitaldi horretan, erabaki zen, alde batetik, lantalde bat eratzea, 7/2015 Legea zenbateraino aplikatu zen (7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze- edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzkoa) eta nagusiki zer arazo eragin zituen eta auzitegiek nola tratatu zituzten aztertzeaz arduratuko zena; eta, bestetik, berriz ekitea beste lantalde bat eratzeari, aurreko lantaldearekin batera, azterketa hori lan-dokumentuari erantsi, eta, 6 hilabeteko epean (ekainera arte), zirriborro berri bat azkentzeaz arduratuko zena, Batzordeak (kontuan hartuta aipatu hilabetean 5/2015 Legea eta 7/2015 Legea onartu zirenetik bost urte igaro zirela) hurrengo osoko bilkuran prest izan zezan.

Azkenean, lantalde horrek amaitu zuen, 2020an, azken ebaluazioa, eta bi dokumentu prestatu zituen: bata, «laburra» (arreta 5/2015 Legean, 7/2015 Legean eta 2/2003 Legean jartzen zuena), eta, bestea, «espektro zabalekoa». Azken horretan, azterketaren xede den aldian euskal zuzenbide zibilarekin lotuta egon diren lege eta gai guztien azterketa integrala egiten da, bai eta horien aplikazioarena ere, eta, aurreko azterketa-aldiarekin alderatzeko, 3/1992 Legetik 2015. urtera bitartekoena.

Bi dokumentuok, azkenik, 2021eko ekainaren 30ean ospatutako Batzordearen osoko bilkuran behin betiko onartuak izan ziren.

- **Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea**

Batzordearen xedea da indarreko xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, bai eta EAEko legeria gizartean unean-unean

bizi den errealitatera egokitzea ere. Hori dela eta, 2018ko urteko planean proposatzen zuen urte hartan zehar arauaren bi zirriborro egiteko lanak hastea, gero lege-aurreproiektu moduan izapidetzeko eta, azkenik, arauzko testuen bi proposamen idazteko:

- Euskal zuzenbide zibilaren arloko kasazio-errekurtsoaren legearen aurreproiektua. Horren helburu nagusia izango da errekurtso horretara zenbateko bidez sartzeko ataria nabarmen murriztea, eta eskubide horren beraren ondoriozko beste kasu batzuk ezartzea, berriz orekatu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salak gai zibiletan duen lan-karga eskasa, eta, hala, euskal zuzenbide zibileko jurisprudentzia-corpusa osatzen duten epaien maila handitu dadin, indarreko xedapenak finkatu eta harmonizatzeko mekanismo nagusi gisa.

- Euskal zuzenbide zibila finkatu eta integratzeko legearen aurreproiektua (2/2003, 3/2005, 5/2015, 7/2015 eta 11/2016 legeen aldaketak, horien koordinazioa eta eguneraketa hobetzeko). Azken horren helburu nagusia da legegintza-mailako esku-hartze bat jorratzea, zuzenbide zibilaren gainean egon diren lege-berrikuntzen ondorioz sortutako aldaketak finkatzeko, eta, horretarako, arau horiek hobetu, koordinatu eta beren artean koherentzia ezartzea, behin-behineko zuzenbideko oharrak sartzea eta agindu jakin batzuk konstituzio-jurisprudentzia berrienera egokitzea.

Hala ere, Komite Teknikoan zeregin horri ekin eta gutxira, ulertu zen aipatu berri ditugun bi arau-proiektuetatik bigarrena aurreko puntuan deskribatutako ebaluazio-prozesuaren ondorioetan oinarritu beharko litzatekeela. Hori dela eta, haren benetako idazketa atzeratzea erabaki zen, harik eta ebaluazio-dokumentu amaitu bat izan arte; hala, lehenengo testura bideratuko ziren indar guztiak. Horren ondorioz, 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan, euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzearen ikuspegitik, euskal kasazio zibilaren lege-aurreproiektuaren proposamena egitea izan zen Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen lana.

Kasazio zibilaren lege-aurreproiektuaren arau-proposamenaren lanketa –Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Penaleko Salara eraman beharreko kasazio-errekurtsoaren berezko erregulazio gisa– Batzordearen osoko bilkura eratzeko bilera berean hasi zen (2017ko azaroaren 29an). Bilkura horretan erabaki zen lan hori batzordekideek osatutako lantalde bati ematea, eta, hura, Komite Teknikoaren laguntzarekin, testu artikulatua idazteaz ardura zedila. Hala, bada, osoko bilkuraren saio berean, batzordekide magistratuak eta fiskala gonbidatu ziren Komite

Teknikoak bere gain hartu beharreko idazketa-lanetan parte hartzera, eta, horrela, lantalde bat eratu zen, Komite Teknikoarekin koordinatuta, testu artikulatuaren zirriborroa idazteaz arduratuko zena.

Azkenik, 2018ko irailaren 2an, Komite Teknikoak formalki hasi zituen testu artikulatuaren zirriborroa idazteko lanak, lantaldeko batzordekideek aurkeztutako aurretiko lanetan oinarrituta. Hori oinarri hartuta, 2018ko urriaren 25ean, Komite Teknikoak egindako lehen zirriborroa lortu zen, eta proiektua egitea zegokien batzordekideei helarazi zitzaien. Beranduxeago, 2018ko azaroaren 9an, Komite Teknikoak aldaketa-iradokizunak jaso zituen lantaldeko kideen aldetik, eta testu artikulatuari gehitu zitzaizkion.

Horrela, 2018ko abenduaren 5ean, urteko ohiko osoko bilkurarako deialdiarekin batera, Komite Teknikoak proiektua egitea zegokien batzordekideekin elkarlanean landutako zirriborroa eta zirriborro horren gaineko memoria bidali zitzaizkien osoko bilkurako kide guztiei. Horiek bidali ondoren, 2018ko abenduaren 10ean, Estatuko Fiskaltza Nagusiak –lantaldeko kideek aurrez eskatuta– urriaren 25eko zirriborroaren gainean egindako txostena jaso zuen Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen idazkari nagusiak. Bi dokumentu horiek 2018ko abenduaren 12ko ohiko bilkuran banatu eta aurkeztu ziren.

Testu artikulatuaren zirriborroari –aldez aurretik banatu eta osoko bilkuran aurkeztu zena– eta Fiskaltzaren txostenari –batzordekide guztiei eman zitzaiena, baita ere– dagokienez, egun horretan egindako osoko bilkuran, 2 hilabeteko epea ezarri zen, batzordekideek banatutako testuari buruzko ekarpenak, zuzenketak eta iradokizunak egiteko aukera izan zezaten. Eta, nahi izanez gero, lantaldean sartzeko hautagaitzak aurkeztu ahal zituzten, batzordeburuari entregatu beharreko azken testua zehazteari begira, hark, 2019an, aurreproiektuari zegozkion administrazio-izapideak egin zitzan.

Geroago, 2019ko urtarrilaren 25ean, Komite Teknikoko kideek eta ekarpenak aurkeztu zituzten kideek bilera bat egin zuten. Bileraren ostean, batzordekide batek testu artikulatuaren beste zirriborro bat bidali zion Komite Teknikoari, aldaketa-proposamenekin. Urteko planean ezarritako epea amaituta, proiektu honetako lantaldean sartzeko beste alegaziorik edo proposamenik aurkeztu ez zenez, urtarrilaren 25eko bileraren ondoren egindako azken zirriborroan oinarrituta, Komite Teknikoak zirriborro bat egin zuen 2019ko otsailaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzu Ofizialera bidaltzeko. Zirriborro horretan, jasotako azken ekarpenak sartu ziren (Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren ekarpena beranduago jaso zen –2019ko martxoaren 29an–, eta, beraz, lege-aurreproiektuaren izapidetze-prozeduran sartu zen zuzenean).

Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzu Ofizialak (IZO) euskaratutako testua jaso ondoren, idazkari nagusiak proposamenaren testu elebiduna

aurkeztu zuen 2019ko martxoaren 14an, batzordeburuak administrazio-izapideei hasiera eman ziezaien. Batzordean ordezkatuta zeuden erakunde guztiek parte hartu zuten prozedura horretan, azken osoko bilkuran adostutakoaren eta 2019ko jarduketa-planean jasotakoaren arabera.

Horren ondorioz, 2019ko maiatzaren 8an, administrazio-izapideari ekin zitzaion, aurretiazko kontsulta-fasearekin, eta euskal kasazio zibilaren legearen aurreproiektua prestatzeko prozedura hasteko agindua eman zen, 2019ko ekainaren 5ean. Hasteko agindu hori ekainaren 17an bidali zen Legegunera, alegia, herritarren parte-hartzerako atarira.

Data horietatik aurrera, izapidetu beharreko testu artikulatua aldez aurretik onartzeko agindua eman zen 2019ko ekainaren 20an, eta proiektuaren justifikazio-memoria ere igorri zen. Halaber, 2019ko ekainaren 21ean, proiektua prestatzeko prozeduraren espedientea bidali zen Eusko Legebiltzarrera (1. fasea).

Urteko hurrengo hilabeteetan, barneko nahitaezko txostenak eskatu ziren (2019ko ekainaren 27an), Eusko Jaurlaritzako sailetara bidali, alegazioak aurkez zitzaten (2019ko ekainaren 28an), eta beste administrazio publiko batzuei eta kanpoko eragileei kontsulta egin (2019ko uztailaren 1etik 12ra bitartean); besteak beste, honako hauei:

- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Eudel
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Mondragon Unibertsitatea
- Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Arabako Abokatuen Elkargoa
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
- Arabako Prokuradoreen Elkargoa
- Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargoa
- Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoa
- Euskadiko Notario Elkargoa
- Erregistratzaileen Elkargoa
- Zuzenbidearen Euskal Akademia
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN)

Geroago, 2019ko abuztuaren 9an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta, jendaurreko informazioaren fasea hasi zen, eta 2019ko irailaren 4an amaitu zen.

Horrela, 2019ko urriaren 18an, amaitutzat eman zen instrukzio-fasea, eta jasotako ekarpenak testuari erantsi, eta testu artikulatuaren beste zirriborro bat prestatu zen. Halaber, izapidetzeari buruzko lehen memoria idatzi eta igorri zen, jasotako ekarpenen eta ekarpen bakoitza onartzeko edo baztertzeko arrazoien berri emanda, eta aurreproiektuaren memoria ekonomikoa idatzi eta igorri, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEBaren) nahitaezko txostena eskatuta.

Izapide horiek eta gero, 2019ko abenduaren 5ean, amaitutzat eman zen izapidetzearen bigarren fasea, eta testu artikulatuaren beste zirriborro batean sartu ziren jasotako azken ekarpenak (Emakunderen egiaztapen-txostena, BJKNren txostena eta KEBren txostena barne). Testu hori eta bigarren izapidetze-memoria 2019ko abenduaren 19an egindako Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen urteko osoko bilkuran aurkeztu ziren, fase honetan jasotako ekarpenen eta horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoien berri emanda.

Osoko bilkura hori egin ostean, 2019ko abenduaren 20an, administrazio-izapideak eten ziren, eta izapidetze-espediente osoaren berri eman zitzaien kide guztiei, testu artikulatuaren bilakaera beren kabuz egiazta zezaten.

Izapidetze administratibo horri berriz ekin zitzaion Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduaren bidez, eta izapidetzea amaitu arte jarraitu zen; hau da, Gobernu Kontseiluak 2021eko ekainaren 1ean lege-proiektua onartu zen arte.

- **Estatuko eta Europako araudi-esparruan zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea**

2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea adi egon da, bai batzordekideen bidez bai Komite Teknikoaren bidez, euskal zuzenbide zibilak araututako erakundeei eragin diezaieketen arau-proiektuei, eta aldaketa eta proiektu posibleak jakinarazi dizkio batzordeburuari.

Horrela, adibidez, osoko bilkuretan, honako arau hauek indarrean jartzeak duen garrantziaz hitz egin eta ohartarazi da:

- 650/2012 (EB) Erregelamendua, 2012ko uztailaren 4koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, eskumenari,

lege aplikagarriari, ebazpenen aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa, *mortis causa* oinordetzen gaian dokumentu publikoen onarpenari eta betearazpenari buruzkoa eta Europako oinordetza-ziurtagiria sortzeari buruzkoa.

- 2016/1103 Erregelamendua, 2016ko ekainaren 24koa, zeinaren bidez lankidetza indartua ezartzen baita ezkontzako araubide ekonomikoen arloko ebazpenen eskumenaren, lege aplikagarriaren eta ebazpen horiek aitortu eta betearaztearen arloan.

- 2016/1104 Erregelamendua, 2016ko ekainaren 24koa, zeinaren bidez lankidetza indartua ezartzen baita erregistratutako bat-egiteen ondare-ondorioen arloko ebazpenen eskumenaren, lege aplikagarriaren eta ebazpen horiek aitortu eta betearaztearen arloan.

Bestalde, ekitaldi horietan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esku egon da etengabe, edozein aholku-eskariri erantzun egokia emateko, bereziki, Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren izapidetzea dela eta kontsultak egitean.

Hala ere, denbora horretan ez du erakunde horien kontsultarik jaso kontzeptu horiengatik.

Era berean, 2019ko ekitaldiko osoko bilkuretan, euskal zuzenbide zibilaren esparruan garrantzitsutzat jotako arau-ekimen hauek jorratu eta ohartarazi ziren:

- Gurasoen banantze- edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzko ekainaren 30eko 7/2015 Legea aldatzeko proposamena (espediente-zenbakia: 11/09/02/02/00026). EH Bildu legebiltzar-taldeak sustatutako lege-proposamen bat zen; Lan eta Justizia Batzordera eraman zen, eta 2019ko otsailaren 7an hartu zen kontuan.

  Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak 2019ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran unean-unean jakinarazi zen bezala, eta lege-proposamenaren legebiltzar-espedientean ere jasota dagoenez, 2019ko ekainaren 11n, EZZBko burua Eusko Legebiltzarreko lehendakariari zuzendu zitzaion gutun bidez (Sarrera - 2019/06/14 - 12:43:32 - Zk.: 3330), ekimen honen izapidetze parlamentarioari dagokionez, eta jakinarazi zion (zuzenbide zibilaren arloko eskumena esplizituki baliatuz emandako legeetako bat aldatzea helburu duen lege-proposamen baten aurrean) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea

prest dagoela, hala egitea eskatuz gero, eratzeko unean Eusko Legebiltzarrak aholku emateko agindutako eginkizuna betetzeko.

- «Erromaria txosten teknikoa» delako herritarren ekimena (arau-eskaera), Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 15. artikulua –besteen landetatik kalterik egiten gabe igarotzeko eskubideari buruzkoa– aldatzeko. Guillermo Ruiz de Erentxun jaunak eta beste batzuek helarazi zioten, posta elektronikoz, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko idazkari nagusiari (2019ko otsailaren 28an).

  Ekimen hori 2019ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran aurkeztu zen (horren berri ere ematen da ebaluazio-dokumentuan; zehazki, batzordekide guztiei banatutako azken bertsioan). Bertan, ekimenaren planteamendua jaso izana adieraztea eta eskertzea erabaki zen, eta jakinarazi zen ekimena kontuan hartuko zela, behar izanez gero, Batzordeak une honetan esku artean dituen gainerako zereginekin batera lantzeko.

- Etxebizitza-errentamenduaren prezioa mugatzeko lege-proposamena (espediente-zenbakia: 11\09\02\02\00045). EH Bildu legebiltzar-taldeak sustatutako lege-proposamena da (2019ko azaroaren 27koa), Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea aldatzekoa. Titulu bat sartzea proposatzen zuten, hainbat kapituluk osatua, hiri-errentamenduak arautzeko eta, hala, errentamenduen prezioa mugatzeko. Horretarako, Gernikako Estatutuaren 10.5 titulua aipatzen zuten, foru-zuzenbide zibilari eta Euskadiko zuzenbide bereziari buruzkoa.

  Ekimena osoko bilkuran aurkeztu ondoren, EZZBko buruak, Eusko Jaurlaritzako sailburu zenez, konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren irizpidean –Ganberari bidali beharrekoan– Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeari buruzko aipamen bat sartzea sustatzeko, eta, Eusko Legebiltzarrak Batzordeari kontsulta egitea proposatuko balu, batzordekideei jakinaraziko litzaieke, ahalik eta lasterren eta ahalik eta ondoen, Batzordearen iritzia emateko modurik onena zein den erabakitzeko.

- Zenbait kofradiak, ermandadek eta mutualitatek Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari aurkeztutako eskabideak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako erregistro berezian inskribatzeko.

  Horren arrazoia da notario eta erregistratzaile batzuek baldintza hori betetzea eskatu dietela trafiko juridikoan parte hartzeko, eta, batez ere, ondasunak transmititu ahal izateko. 5/2015 Legearen arabera, forma

tradizional horiek bereganatzen dituzten sozietate zibilak beren araudiaren mende egongo dira, eta aipatutako erregistroan inskribatzeko aukera ematen du, berresten baitu, inskribatuta egonez gero, nortasun juridiko propioa izango dutela. Sailaren jarrera, hasiera baten, horri dagokionez, zuhurtziaz jokatzea izan zen, batez ere kontuan hartuta Konstituzio Auzitegiak erregistro juridikoei buruz emandako jurisprudentzia. Bertan, erregistro administratiboak eta zibilak edo juridikoak bereizten ditu, eta autonomia-erkidegoek lehenak sortzeko eta arautzeko eskumena dutela berresten badu ere, ez dute eskumenik bigarrenen gainean.

Kasuan kasuko sailaren egoitzan zenbait aukera aztertu ziren, eta horietako bat izan zen gutxieneko jarduketa bat egitea; hau da, administrazio-egintza baten bidez, dagoeneko sortuta dagoen erregistroaren atal bat sortzea (elkarteen atala). Hala ere, azkenean, ez zen zehaztu, eta, geroko azterlanak ekarri zituen.

- Erregistratutako bikoteei buruzko 1104/16 (EB) Erregelamenduari dagokionez, osoko bilkuran proposatu zen Europar Batasuneko Justizia Batzordeari galdetzea ea gure izatezko bikoteen erregistroa erregelamenduaren ondorioetarako erregistro bat den, ez baitu erregelamenduak ebazten, eta ez baitugu ebazten duen estatu mailako legerik, eta berezitasun hau du: kapitulu-itunak erregistro zibilean sartzen dira, eta, bikoteak, aldiz, zibila ez den erregistro batean. Kontsulta hori egiteko arrazoia zen, gaur egun, izatezko bikoteen erregistroak bikote mota horren kopuru oso nabarmena eta gero eta ugariagoa duela. 2019an eta 2020an, kontsulta horren prestaketan lan egin zen.

Halaber, 2019ko ekitaldian, EZZBk honako txosten-eskaera hau jaso zuen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren aldetik:

- Txosten-eskaera, Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektuaren gainekoa.

  Txosten-eskaera justifikatzeko, txostenaren xede den dekretu-proiektuak atal bat eskaintzen dio Euskal Autonomia Erkidegoan *ab intestato* oinordeko izendatzeko prozedurari, III. tituluko –«Ondasunak eta eskubideak eskuratzea»– I. kapituluaren –«Doako eskuratzeei buruzko xedapenak»– barruan. Hori guztia, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena) 38. artikulua –«Doako eskuratzeetarako eskumena eta prozedura»– eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 117. artikulua –«Autonomia Erkidegoaren aldeko oinordetza»– garatuz.

Kontsulta horri erantzuteko, batzordekideek 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran aurkeztutako txostenaren zirriborroari egindako ekarpenak gehitu ondoren, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 1/2020 txostena egin zen 2020ko urtarrilaren 28an.

Eusko Legebiltzarrari dagokionez, batzordeak Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari egindako berariazko eskaintzak eta hark izendatutako batzordekideek Ganberarekin duten harremana alde batera utzita, 2019ko ekitaldian, erakundeak ez du Eusko Legebiltzarraren inolako kontsultarik jaso gai horien inguruan.

- **Batzordearen beste eginkizun batzuk eta berezko jarduerak antolatu eta kudeatzea**

Zuzenbide Zibilaren Batzordearen eginkizunen artean sartzen da, baita ere, zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da Euskal Zuzenbide Zibilaren adierazpen-hizkuntza bezala, eta bere terminologia juridikoa aztertu, bultzatu eta zabalduko da, Europan eta Estatuan oro har onartzen diren araubide onaren printzipioak bermatuta.

Hori horrela, 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea etengabe egon zen Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku, adierazitako gaiei buruzko edozein aholkularitza-eskaerari erantzuteko.

Hori guztia, are gehiago eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen beraren lanetan eta, bereziki, egin zituzten arau-zirriborroetan edo proiektuetan kontuan hartu beharrari kalterik egin gabe. Horien artean, ekitaldi hauetan zehar euskal kasazio zibilaren lege-aurreproiektuaren proposamenaren inguruan egindako lanak nabarmendu behar dira.

Goian aipatutakoez gain, Estatutuetan honako zeregin hauek ere esleitzen zaizkio Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeari (idazkari nagusiak behar bezala bete ditu):

- 4. eta 11.3.b) artikuluen arabera, idazkari nagusiak koordinatu behar ditu Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen kanpo-harremanak eta harreman instituzionalak. Hau da, lankidetza bultzatu eta sustatu behar du Batzordearen antzeko izaera duten zuzenbide zibilean espezializatutako edo kodetzearen arloko beste kontsulta-organo batzuekin, Espainian, Europan edo nazioartean. Xedea izango da esperientzien trukea bultzatzea, elkarren jardunbide egokiak ezagutzea

eta tresna praktiko edo informatikoak garatzea, edo interes komuneko gaietan beste lankidetza-arlo batzuk garatzea.

Horretarako, 2018an, lehen harremanak ezarri ziren Kataluniako Kodifikazio Batzordearekin eta Kataluniako Zuzenbide Pribatuaren Behatokiarekin, bai eta Aragoiko Zuzenbide Zibilaren Batzordearekin ere.

Beste gai prosaikoago edo berehalakoagoen batzuen artean –halakoa izan zen Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen aurkezpena, erakunde sortu berri gisa–, organo homologo horiekin jorratu beharreko lehen gaietako bat izan zen aldez aurretik arauen ebaluazioaren arloan izan zitzaketen esperientziez arduratzea, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak proposatutako ebaluazio-proiektuaren eredu izan zitezen.

Hori guztia, aurkitzeko ezen, ebaluazio-eginkizun hori organo aholku-emaile horien jarduera eratzeko eta arautzeko arau batzuetan formalki agertzen bada ere, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak proposatutako ebaluazio-proiektua bakarra zela bere motari dagokionez, eta, beraz, eginkizun hori betetzeko bidea irekitzen zuela.

Era berean, 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran, bertaratutako kideei jakinarazi zitzaien EUSTATen, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen eta Euskal Herriko Notario Elkargoaren arteko lankidetza-hitzarmen bat egiteko proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko notario-protokoloetan emandako eta gordailututako eskritura publikoen aprobetxamendu estatistikorako.

Ekimena zuzenbide zibilaren egoera ebaluatzeko dokumentuaren inguruan egindako lanetatik abiatzen da. Horren harira, Notario Elkargoko kideek eta Komite Teknikoak ohartarazi zuten notario-indize bakarrean jasotako sailkapen batzuk ez zirela egokitzen euskal zuzenbide zibilaren egoerari eragiten dioten beharretara.

Hori dela eta, lanean ari ziren Notario Elkargoko kideen artean, euskal zuzenbide zibilaren beharretara hobeto egokitzen den sailkapen bat egiteko aukera proposatu zen, Euskadin lan egiten duten notarioen datu horiek biltzeko lankidetza-hitzarmen bat egiteko proposamena barne.

- Estatutuen 11.3.j) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, idazkari nagusiak Euskadiko zuzenbide pribatuari buruzko funts dokumental eta bibliografikoaren sorrera gainbegiratu beharko du.

  Horren harira, 2018. urtean hasi ziren Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko Liburutegiaren eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren arteko koordinazio-lanak, beren funts

propioetan nahiz Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusian gai horren gainean eskuragarri dauden aleak identifikatu eta katalogatzeko.

Era berean, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren eskura dagoen aurrekontu-partidaren kontura, garrantzi berezikotzat jotzen diren obrak eskuratzen jarraitu zen, bai zerbitzuaren beharrak bai Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko kideen iradokizunak kontuan hartuta.

Hori horrela, 2019an, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak, idazkari nagusiaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak eta Argitalpen Zerbitzuak Foru Jurisprudentzia Zibilaren Bildumako (XVI-XX. mendeak) bi liburuki (VII-1 eta VII-2) argitaratzen lagundu zuten, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean: *Sociedades civiles del País Vasco (1560-1799)* eta *Sociedades civiles del País Vasco (1802-1902)*. Horien kopiak 2019ko osoko bilkuran parte hartu zuten batzordekide guztiei banatu zitzaizkien.

∞

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko idazkari nagusia
Gasteiz.
2021eko azaroaren 22a.

Donostia 1, 01010 GASTEIZ
T. 945 01 86 30 ddlycn@euskadi.eus